

Inpresionismoa

Joera inpresionista pintura fantzia-rraren barruan sortu zen, 1860 eta 1870. urte bitartean, aurretik Constable, Turner eta Courbeten lanarekin iragarria izan ondoren. Ordezkaririk nagusien artean Monet, Manet, Pissarro, Sisley, Degas eta Renoir aurkitzen dira artista frantsesen artean. Inpresionismo alemanaren ordezkariak Trübner, Liebermann, Corinth eta Slevogt dira.

Inpresionistek beren tailerrak utzi eta aire librean pintatzen hasi ziren. Fontainebleauko basoa, Senaren ibaiertzeko eta Kanalaren kostaldeko parajeak izan ziren natura inpresio subjektiboetan oinarrituz atzitzen zuen pintura berri honen eszenatokiak. Inpresionistek askatu egin zuten materia bere pisu, dentsitate eta trinkotasun-bereizgarrietatik, eta argi garbiaren energia eraldatu eta kolore-parrastada mugikor bihurtu zuten. Arte-korronte honen funtsezko irizpidea zera zen, izadi baitako gauzak azaltzea beren gorpuztasunean ez baina eguzki, argi eta airearen eraginez iradokitako beren kolore-analisia-ren bitartez. Beraz, tokiko bertako koloreak desagertu egin ziren eta pintura-mantxa nimiño ugariak azaldu ziren haien lekuan, ikuslearen begian berriro osatu behar izaten zirenak. Perspektiba ez da koadroaren azaleko gauzen kokaeratik abiatuz egiten, etengabeko ingurugiro-aldaketa jasaten duten tonalitate eta kolore-pintzelada ugarietan oinarrituz baizik. Argia kolore-izpi eta pintzeladetan urtze hori aldibereko kontraste kromatikoaren legearekin araupetzen zen, eta horren eraginez, beste baten aldamenean jarritako kolore baten aldakera konplementagarritasun-legeen arabera ezartzen da.

Dario de Regoyos, "Ondarroa. Txalupen Itzulera", 1906. Kutxa, Donostia.



Hasieran modu ez-dogmatikoan manejatzen zen kolorearen tratamendu horretatik abiatuz, Georges Seurat eta Signac neoinpresionistek puntillismoa iristeraino eboluzionatu zuten, koloreari buruzko ikerketa zientifikoa- ren bitartez.

Inpresionismoaren helmuga izadia- ren itxurari buruzko ilusio betegin bat lortzea izan zen, ilusio horretan den- dena -aireak argiaren gain eragiten duen efektu hutsala bera ere bai- ispilatuta uzten saiatuz. Atmosfera- giroa atzitzea eta bereizgarri espiritual bezala hartutako inpresio subjektiboa izan ziren joera artistiko honen estilo- berezitasunik funtsezkoenak; inpresio- nismo berantiarrekin bizitu zuen azkenean joera honek bere oparoaldia eta, berebat, bere superazio-aldia.

Inprimaketa artistikoa

Deitura generiko bat da, artistikoki landutako ereduak -liburu eta karte- len inprimaketa edo honelako beste erreproduktzio-motaren baterako egin- dakoak- botaldi mugatuetan ateratze- ko modua ematen duten multikopiako teknikak izendatzeko erabiltzen dena. Multikopiako inprimaketa-prozedimen- tuen artean, egurrezko grabatua, kobre-grabatua, akuaforte, akuatina- ta, litografia, serigrafia eta beste zen- bait teknika sartzen dira.

Inprimaketa-proba

Grabatuen inprimaketa-prozesuan, botatzen hasi aurretik originalaren kalitate-egoera eta inprimaketa-proze- su guztia kontrolatzeko egiten den proba bat da. Koloretako inprimake- tan egoera-proba bat baino gehiago egiten da inprimatze-plantxa bakoit- zarekin harik eta, bukatutako produk- tura iritsi bitartean, prozesu osoaren tarteko fase desberdinak ondo kontro- latuta uzten diren arte.

Instrumental

Arte ideografikoaren eboluzioz sortu den arte prozesualaren barruan, ekintza konfiguratzailer artistikoa ez da, jadanik, objektugintzaren mailan jartzen, prozeduraren ibilian edo igä- rotzan bertan baizik, eta ondorioz, gertakizun-prozesua bukatzen denean emaitza bezala ez da inolako produktu artistikorik geratzen. Prozesu horretan erabilitako materialak demostrazioko

baliagarri hutsak izaten dira, behin prozesu artistikoa amaitzen denean inolako baliorik gabe geratzen direnak eta, beraz, nahi den bezala trukatzeko moduan geratzen direnak. Franz Erhardt Walther-ek sortu zuen bere prozeduretan erabilitako materialak izendatzeko, instrumentalaren kon- zzeptua, deitura tekniko horrekin, hain zuzen, kutsu tradizionalako arte-objek- tuekin daukaten desberdintasuna argitzeko asmoarekin.

Jugendstil

Ikus modernismoa

Junk-culture

Arte objektualaren arlotik datorren kontzeptu bat da, eta egungo masa- zibilizazioko mekanismo kontsumistak erabiltzen dituen objektuak hartzen ditu. Objektu horiek, artearen bitartez eraldatuta, aurkezte-inguru estetiko huts batean jartzen dira, funtzio eta ezaugarri berriak bereganatuz horre- kin. *Junk-culture* hori *Funk-art* (izu- artea) esaten zaion Edward Kienholz, Paul Thek eta Bruce Conner-en *envi- ronment* artearen espazioetan azal- tzen da nagusiki.

Kaligrama

1913. urtean, bere lehen kaligra- mak sortu zituen Guillaume Apolli- nairek eta hasieran "ideograma liriko- ak" deitu zituen. Kaligramak testu- irudi poetiko moduko batzuk dira, letrak hitzak adierazten duten objek- tuaren forma fisikoa hartuz ordenatu- ta dauzkatenak. Jatorrian, kaligramek kubismo analitikoaren eta futurismoa- ren eragina jaso zuten alde batetik, eta aldizkarietako konposizioan eta kartelgintzan inspiratuta zeudela ikus- ten zaie beste aldetik. Lehenengo kaligramak 1914ean argitaratu ziren *Soirées de Paris* aldizkarian; 1918an olerki-bilduma bat azaldu zen *Calligrammes 1913-1916* tituluarekin.

Kalitate kromatikoa

Kolore baten balore tonalari ematen zaion izena da, argi-purutusuna = balo- re luminiko bezala hartu eta horren ara- bera neurtuta. *Op art* eta *colour pain- ting*-arekin kalitate kromatikoa konfigu- razio artistikoaren funtsezko elementu bihurtu da.